EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA SAILA — DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

| | |
|---|---|
| **Gaia: Ikasgela digital interaktiboak** | **Asunto: Aulas digitales interactivas** |
| **Zuzendari agurgarriak:** | **Estimadas directoras y directores:** |
| Egun hauetan polemika sortu da Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetan ikasgela digital interaktiboak instalatzeko ekimenaren hedapenari buruz. Hori dela eta, jakinarazpen hau bidaltzen dizuegu, aipatutako ekimena gauzatzeari buruz ikastetxeei helarazi eta bidali zizkieten informazioak gogorarazteko. | Dada la polémica suscitada estos días sobre el despliegue de la iniciativa de instalación de aulas digitales interactivas en los centros educativos públicos de la Comunidad Autónoma del País Vasco, os remitimos la presente comunicación como recordatorio de las informaciones que ya fueron trasladadas a los centros y remitidas por éstos con respecto a la ejecución de la iniciativa mencionada. |
| **Ikasgela digital interaktiboak Hezkuntza Ekosistema Digitalizatzeko Lurralde Lankidetzako Programaren esparruan daude (#EcoDigEdu), Europar Batasuneko Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoak (Next Generation EU) finantzatuta.** COVID-19aren pandemiak hezkuntza-sistemak baliabide digitalen faltaren ondoriozko salbuespenezko egoerei aurre egiteko zuen gaitasuna zalantzan jarri zuen. Ikastetxeek ere balorazio hori egin zuten eta aipatutako programa gabezia horri aurre egiteko bideratuta dago. | **La aulas digitales interactivas se sitúan en el marco del Programa de Cooperación Territorial para la Digitalización del Ecosistema Educativo (#EcoDigEdu), financiado por el Mecanismo de Recuperación y Resiliencia de la Unión Europea (Next Generation EU).** La pandemia del COVID 19, puso en entredicho la capacidad del sistema educativo para afrontar situaciones excepcionales por la falta de recursos digitales, valoración que también se trasladó desde los centros educativos. Este programa, entre otras cuestiones, está destinado a solucionar dichas carencias. |
| **Programa horren helburua da** hezkuntza-sistemaren eraldaketa digitalean aurrera egitea, ikastetxeetan eskuragarri dauden baliabide teknologikoak hobetuz, arrakala digitala murriztuz eta ikasleei eta irakasleei bitarteko digitaletarako sarbide ekitatiboa erraztuz. **Euskadin, jarduketa hau C19.I2 «Hezkuntzaren eraldaketa digitala» lerroaren bidez egituratzen da,** eta ikasgeletan sistema digital interaktiboak (SDI) instalatzea, eguneratzea eta mantentzea aurreikusten da. | **Este programa tiene como objetivo** avanzar en la transformación digital del sistema educativo, mejorando los recursos tecnológicos disponibles en los centros, reduciendo la brecha digital y facilitando el acceso equitativo a medios digitales para el alumnado y el profesorado**. En Euskadi, esta actuación se articula a través de la línea C19.I2 "Transformación Digital de la Educación",** y contempla la instalación, actualización y mantenimiento de Sistemas Digitales Interactivos (SDI) en las aulas. |
| **2024ko urrian ikastetxe guztietara bidalitako idazkiaren bidez jakinarazi zen bezala, ikasgela digital aurreratuak ikasleei eskolak ematera bideratuta daude.** Jakinarazpen horretan bertan, ikastetxeei eskatu zitzaien ikasgela-kopurua eta ekipamendua instalatu nahi zutenen kokapena bidaltzeko, irakasle-gelak, guraso-elkarteak, administrazioa, zuzendaritza, mintegiak eta abar alde batera utzita. Ikasgela digital bakoitzak honako ekipamendu haubarne hartzen du, eta osorik instalatu behar da: | **Como ya se informó mediante escrito remitido a todos los centros en octubre de 2024 las aulas digitales avanzadas son aquellas destinadas a la impartición de docencia al alumnado.** En esta misma comunicación se solicitaba a los centros que remitiesen el número de aulas y la ubicación de aquellas en las que querían que se instalase el equipamiento, excluidas las salas de profesorado, AMPA, administración, dirección, seminarios, etc. Cada aula digital incluye el siguiente equipamiento que ha de instalarse en su totalidad: |
| • Formatu handiko monitore interaktiboa.<br>• Mahai gaineko ordenagailua.<br>• Gelako web-kamera.<br>• Hari gabeko mikrofono pertsonala.<br>• Ikasgelako hari gabeko mikrofonoa. | • Monitor interactivo de gran formato.<br>• Ordenador de sobremesa.<br>• Cámara web de aula.<br>• Micrófono inalámbrico personal.<br>• Micrófono inalámbrico de aula. |
| **Ikasgela digitalen helburu pedagogikoa.** | **Finalidad pedagógica de las aulas digitales.** |
| Ikasgela digitalak ez dira ekipamendua gehitze hutsa, irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuak hobetzeko funtsezko tresna baizik, bai modalitate presentzialean, bai urrunekoan edo mistoan. Diseinua honako printzipio hauen araberakoa da: | Las aulas digitales no son una simple incorporación de equipamiento, sino una herramienta clave para mejorar los procesos de enseñanza y aprendizaje, tanto en modalidad presencial como a distancia o mixta. Su diseño responde a los siguientes principios: |

| | |
|---|---|
| • Ikasleen inklusio digitala erraztea, bereziki zaurgarritasun -egoeran-daudenena.<br>• Ikasleen eta irakasleen gaitasun digitalaren garapena bultzatzea.<br>• Metodologia aktiboak eta elkarlana babestea.<br>• Hezkuntza-edukien grabazioa eta emanaldia ahalbidetzea, ikastetxearen eta irakaslearen iritziz beharrezkoa denean, ikaskuntzaren jarraitutasuna bermatzeko. Inola ere ez dira planteatzen baliabide pertsonalak ordezkatzeko elementu gisa (irakasleen ordezkapenak, etxez etxeko arreta-programak, guardiak, etab.). | • Facilitar la inclusión digital del alumnado, especialmente de aquel en situación de vulnerabilidad.<br>• Impulsar el desarrollo de la competencia digital en el alumnado y profesorado.<br>• Apoyar metodologías activas y el trabajo colaborativo.<br>• Permitir la grabación y retransmisión de contenidos educativos, cuando sea necesario a criterio siempre del centro educativo y del docente, para garantizar la continuidad del aprendizaje. En ningún caso se plantean como elementos sustitutivos de recursos personales (sustituciones de profesorado, programas de atención domiciliaria, guardias etc.) |
| **Kameren instalazioari buruz** | **Sobre la instalación de cámaras** |
| Ikasgelan kamerak instalatzeak zalantzak sor ditzakeela uste dugu. Horregatik, honako hau argitu nahi dugu: | Entendemos que la instalación de cámaras en el aula puede generar dudas. Por ello, queremos aclarar que: |
| • Kamerak ez daude ez kontrolera ez zaintzara bideratuta, baizik eta hezkuntza-edukien grabazioa erraztera edo modalitate hibridoko prestakuntza-jardueretan parte hartzera.<br>• Horien erabilera ikastetxe bakoitzak bere Plan Digitalean ezartzen dituen jarraibideen araberakoa izango da beti.<br>• Gailu horiek instalatzeak ez du esan nahi nahitaez erabili behar direnik, baizik eta ikastetxearen eta irakasleen eskura jartzen direla, baliabide pedagogiko gisa.<br>• Instalatu eta behar bezala funtzionatzen dutela egiaztatu ondoren, leiarra desinstalatu ahal izango da, zaintzeko eta erabiltzeko, ikastetxe eta irakasle bakoitzak behar duenean. | • Las cámaras no están destinadas al control ni a la vigilancia, sino a facilitar la grabación de contenidos educativos o la participación en actividades formativas en modalidad híbrida.<br>• Su uso estará siempre sujeto a las directrices que establezca cada centro en su Plan Digital.<br>• La instalación de estos dispositivos no implica su uso obligatorio, sino que se pone a disposición del centro y del profesorado como recurso pedagógico.<br>• Una vez instaladas y comprobado su funcionamiento adecuado, podrá desinstalarse la lente para su custodia y utilización en los momentos que cada centro y docente lo precise. |
| Instalatutako ekipo guztiak zentrotik bakarrik kontrolatzen dira, eta, beraz, ikastetxeak erabakitzen du nola erabili eta erregulatu. | Todos los equipos instalados se controlan exclusivamente desde el centro, por lo que es éste quien determina su uso y regulación. |
| Ikasgela digital interaktiboen instalazioari buruzko zalantza guztiak argitu ditugulakoan gaude, eta klaustroari eta Eskola Kontseiluari erantsitako informazioa helarazteko eskatzen dizuegu, lasaitasun-mezu bat eta ikastetxeko hezkuntza-proiektu bakoitzaren zerbitzura beti egongo den teknologia horren hornidurak dituen aukerei buruzko ikuspegi konstruktibo bat transmitituz. | Esperamos haber despejado todas las dudas acerca de la instalación de las aulas digitales interactivas y os pedimos se traslade al claustro y al Consejo Escolar la información adjunta trasmitiendo un mensaje de tranquilidad y una visión constructiva sobre las posibilidades que presenta la dotación de esta tecnología que siempre va a estar al servicio de cada proyecto educativo de centro. |

Vitoria-Gasteiz, 2025eko urriaren 30a

**HEZKUNTZA SAILA**